

sasoian

2010eko uztaila

19. zenbakia

Eneida Etxabe eta Leire Baraibar

“Emakumeon arrauna jada
ez da anekdota hutsa” • 4

Zirauna
NereSport

GETARIA
ZUMAIA FLYSCH TRAIL
Bigarren urtean koska bat gorago • 8

ZARAUTZ BALEA IGERIKETA
Adin guztietakoentzat igerilekua • 10

GAZTETXOEN AISIALDIA
Kirol berriak ezagutzeko aukera • 12

Ainhoa Muruak irakurleen galderak erantzun ditu

Erredaktorea

Aritz Mutiozabal

Harremanetarako: 607 615 239

e-posta: sasoian@sasoian.info

Argazkiak

AZALA: Urola Kostako Hitza.

Sasoian 2.0: Urola Kostako Hitza

Beroketa ariketak: K-Sub.

Berriketa: Urola Kostako Hitza eta

Joxemari Olasagasti.

Kronika: Pedro Etxeberria, Zumaia

Flysch Trail eta Imanol Manterola

(Distira Argazki Elkarteak).

Taldeka: Zarautz Balea Igeriketa eta

Urola Kostako Hitza.

Kirolari gazte: Urola Kostako Hitza,

Quiksilver King of the Groms eta

Orioko Herri Ikastola.

Hariari tiraka: Urola Kostako Hitza, TKE

Liga, Pagoeta-BTT-Zarautz eta ASP.

Diseinua

Roberto Gutierrez

Maketazioa

Ane Azkue

Edukien garapena

Urola Kostako Hedabideak EM

Inprimategia

Orvy EM

Argitaratzailea

SASOIAN aldizkaria **Urola Kostako**

Udal Elkarteak argitaratzen du.

Hilabetekari honek Aia, Getaria, Orio,

Zarautz eta Zumaia kirol albisteak

jasazten ditu.

www.sasoian.info



Urola Kostako Udal Elkarteak

kudeatzen du sasoian.info webgunea.

Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta

Zumaia kirol albisteak, agenda

nahiz emaitzak topatuko dituzu bertan.

UROLA KOSTAKO



UDAL ELKARTEA

ZOZKETA



LAGUN ARO SASKIBALOI
TALDEAREN ESKUTIK **BALOIA**
ETA BUFANDA

Irabazlea:
EÑAUT GONZALEZ
BASTERO
(Zarautz)



Indartsu dago Ainhoa Murua triatleta zarautzarra. Zarauzko Triatloian lehiatu ez bazuen ere, Euskal Herriko hainbat proba irabazi du (Lekeition eta Donostian) eta nazioartean ere maila bikaina ematen ari da: Beauvais-eko Sari Nagusian hirugarren eta Irlandan jokaturako Europako Txapelketan laugarren izan da, esaterako. Burubelari dabilen arren, www.sasoian.info-ko irakurleen galderak erantzuteko tarte hartu du.

Aupa Ainhoa! Bi Olinpiar Jokotan izan zara, eta hirugarrena hemendik bi urtera izango da. Bertan izateko itxaropenik ba al duzu? Animo kanpeona! Hiru kirol (Zumaia)

Horretarako ari naiz gogor entrenatzen. Pasa den larunbatean [Ekainak 5], Madrilo Munduko Txapelketako lasterketan hasi zen Olinpiar Jokoetarako sailkapena. Bi urte gogor izango dira sailkapena lortu arte, eta fisikoki eta mentalki indartsu egotea garrantzitsua izango da. Ea gauzak ondo atera eta hirugarrenez sailkatzen naizen!

Nola moldatzen zarete hiru kirolak entrenatzeko eta, era berean, hiruretan behar bezala aritzeko? Zauzitarra

Hori norberaren mailaren eta denboraren arabera izaten da. Goi mailan gabiltzanok hiru kirolak ia egunero lantzen ditugu, baina, bestela, triatloi bat bukatzeko, egunean saio bat egitearekin nahikoa

da. Komenigarria litzateke, betiere, ahule- na duzun diziplina gehiago entrenatzea.

Zein da sekula egin duzun probarik gogorrena? Mireia (Getaria)

Zaila da aukeratzeko, baina agian nire lehen triatloia esango nuke. Corian (Cáceres) izan zen, eta ia 40 gradu egiten zituen. Helmugatik 200 metrora zorabiatu eta ospitalean amaitu nuen.

Badirudi triatloia modan jarri dela. Gero eta lagun gehiago animatu da azkenaldian parte hartzera. Zu hasi zinenetik hona garapen hori antzeman al duzu? Juan Luis (Orio)

Egia da. Azken urte hauetan gero eta jende gehiago ari da animatzen. Emakumeak ere pixkanaka gero eta gehiago gara, eta horrek poz handia ematen du. Ni triatloian hasi nintzen garaitik, kirol bezala, gorantz egin duela nabaritu dut.

Zeintzuk dira aurtengo denboraldia- ri begira dituzun helburuak?

Munduko Txapelketa da helburu nagusia. Munduko Txapelketa zazpi lasterketek osatzen dute, eta lasterketa hauetan ahalik eta aurreen egotea da asmoa, sailkapen olinpikorako puntuak lortzeko. Aurtengo beste helburua Irlandan jokaturako den Europako Txapelketa izango da [4. postuan bukatu zuen]. Eskerrik asko animo- engatik.

Murgildu zaitez itsasoan

URPEKARITZA itsasoan, lakuan edo ibaian barneratzeko jarduerari deritzo, eta hainbat helburugatik praktikatzen du jendeak: kirol edo aisialdi gisa, zientzia ikerketarako, edo urpeko lanetarako, hain zuzen ere. Denek antzerako funtzionamendua eta ekipamendua erabiltzen badute ere, bakoitzak bere ñabardurak ditu. Kirol edo aisialdi urpekaritzak kostaldea beste modu batera ezagutzeko aukera eskaintzen du. Are gehiago, uda sasoiari. Gainera, eskualdean urpekaritzan aritzen den edota urpeko jarduerak nahiz bataioak antolatzen dituen hainbat talde eta enpresa dago: Getarian, K-Sub; Zarautzen, Urpekoak, Mollarri Sub eta Alitan; eta Zumaian, Olarru-Sub. Animatu eta murgildu zaitez itsasoan!

Urpekaritza praktikatzeko bi modu nagusi daude: bata, apnea edo arnasik hartu gabe egiten da eta, bestea, eskafandra autonomo edo SCUBA baten bidez; hau da, airea daramaten botilen laguntzarekin. Apnea bidezko urpekaritzan, arnasa sakon hartuz eta berau mantenduz urperatzeko teknika

menderatu behar da, horretarako espreski trebatuta. Ekipamendu berezirik behar ez den arren, ezinbestekoak dira oinarrizko materialak: uretako betaurre-



koak, aletak, arnasa hartzeko tutua eta hotzetik babesteko neopreno jantzia edo jantzi termikoa.

SCUBA urpekaritzan, aipatutako oinarrizko ekipamenduaz gain, honako hauek ere erabiltzen dira: airea gordetzeko botila, arnasa, flotagarritasun mekanismoa, txaleko hiroestatikoa eta erreguladorea. Botila bidezko urpekaritza eredu horri esker, urpekariak denbora jakin baterako autonomia lortzen du ur azpian. Kirol urpekaritzan normalean sakontasuna 40 metro azpira artekoa izaten da gutxi gorabehera, nahiz eta apnea eginez sakontasun handiagoak lor daitezkeen.

Kirol urpekaritza jarduera segurua bada ere, parte-hartzaileen aldetik erantzukizun handia eskatzen du. Urpekaritza behar bezala eta arazorik gabe egin ahal izateko, behar-beharrezkoa da prestakuntza egokia jasotzea eta erabiltzen den ekipamenduaren ezagutza nahiz segurtasun arauen ezagutza izatea eta betetzea; baita gutxienezko teknika eta fisiologia ezagutzak izatea ere, uretako fauna eta flora errespetatzeko.

BEHARREZKO EKIPIAMENDUA

Urpekaritzan erabiltzen den ekipamendua bi mailatan banatzen da: bata, oinarrizkoa da eta bestea, autonomoa edo SCUBA deritzona (Self Contained Underwater Breathing Aparatus).

Oinarrizko ekipamendua:

- Betaurreko egokiak, sudurra barneratzen duena eta aurpegira behar bezala moldatzen dena.
- Burua uretatik atera gabe arnasa hartzeko aukera ematen duen tutua edo snorkel-a.
- Hipotermiatik babesteko neoprenozko jantzia; eskularruak eta eskarpinak gehitu behar zaizkio honi. Eskarpinek, gainera, aleten urraduretatik babesten dituzte oinak.
- Aletak edo oinetako hegala, ur azpian abiadura handiangoan higitzeko.
- Lasta gerrikoa, ur azpian errazago mantentzeko; pisurik gabe, gorputza goraka joaten da.

SCUBA ekipamendu autonomoa:

- Airedun botila; eduki dezaketen gasaren (5 eta 18 litro artean) eta onartzen duten presioaren (230 eta 300 bar artean) arabera botilak daude.
- Bi neurgailu eramatea komeni da: bata, ur azalera dagoen distantzia neurtzeko eta, bestea, botilan dagoen airea neurtzeko.
- Txaleko hidroestatikoa edo bizkarrean botila mantentzen duen arnarekin bateratutako txalekoa.
- Lagungarriak diren beste tresna batzuk:
 - Labana
 - Linterna
 - Soka, bozina eta arbela.

Eneida Etxabe eta Leire Baraibar

Getaria-Tolosa traineruko arraunlariak

«Berdintasuna oraindik urruti dago emakumeen arraunean»

Trainerilletan sekulako erakustaldia eskaini ondoren, Getaria-Tolosak bide berari eutsi eta hasiera ona eman dio traineru denboraldiari; aurtan, gainera, eskualdeko hiru talde ari dira lehian.



GETARIAKO ARRAUN

elkarteko arraunlariak dira Eneida Etxabe (Getaria, 1988) eta Leire Baraibar (Areso, 1979), eta biak trainerurako taldea sortu zutenetik dabilta bertan; Etxabe beheko mailetatik hasia eta Baraibar, berriz, duela hiru urtetik. Trainerilla denboraldian, ia dena irabazi dute aurtan: Gipuzkoako Liga eta Gipuzkoako nahiz Euskadiko txapelketak; eta Espainian txapeldu-norde izan dira. Lortutako garaipenekin oso gustura daudela onartu dute, baina trainerilletan ongi ibiltzea «betebeharra» zela adierazi dute: «Iaz liga eta bi txapelketak irabazi genituen, eta

aurtan ere borrokatzeko aukerak geneuzkela ikusten genuen. Agian, aurtan koska bat igo dugu, Espainiako Txapelketan emaitza hobea lortu baitugu». Atsedetik hartzeko astirik gabe, ekainaren erdian Tolosako arraunlariekin elkartu eta traineru denboraldia prestatzen hasi ziren. Orain, iraila bitartean, trainerilletan erakutsitako maila eta, nola ez, iaz egindako lana berretsi nahian dabilta. Nagusitasun hori udako estropadetan islatzeko gogoz badaude ere, zuhurtziaz erantzun dute bi arraunlariak: «Ez dago gure esku bakarrik, gainerako ontziak nola dauden ikusi behar baita».

Hala ere, hasiera ezin hobea eman diote sasoi berriari: EuskoTren Ligako lehen bi estropadak irabazi dituzte Gipuzkoa selekzio gisa (Zu-maiarekin batera, txandaka ordezkatzan ari dira), eta Gipuzkoa Ligan ere nagusi dira.

Trainerua ateratzen duzuen hirugarren urtea duzue aurtengoa, Tolosako arraunlariekin bat eginda bigarren. Nola ikusten duzue denboraldia?

Eneida Etxabe: Gogotsu ekin diogu denboraldiari, zalantzarik gabe. Iaz egindako lana errepikatu nahiko genuke eta, ahal izanez gero, hobetu. Egia esan, hirugarren

«Talde bezala, iazko blokea mantentzea abantaila nabarmena da taldearentzat»

urtea dugu, eta hasi ginenetik hona esperientzia pixka bat irabazi dugu. Ez da gu baino eskarmentu gehiago duen emakume arraunlaririk edo talde askorik izango estropadetan!

Beste behin Tolosarekin elkartu zarete. Bakarka, Getaria bezala taldea sortzeko behar adina arraunlaririk ez al dago herrian?

Leire Baraibar: Ez eta, gainera, ez da erraza arrauna egitera animatzen diren neskak topatzea. Galizian ere bi elkarte batu dira, trainerurik osatzen ez zutelako. Gizonezkoen taldea osatzea zaila bada, emakumezkoena osatzea are zailagoa.

E.E.: Azken urteetan emakumezkoen arraunak gorantz egin du, baina, azkenean, beti jende berdintsuak jarraitzen dugu. Beharbada, beheko mailetan gehiago antzematen ari da, jubeniletan eta.

L.B.: Oro har, gero eta emakume gehiago animatzen ari da arrauna egitera. Gipuzkoan, esaterako, iaz baino bi talde gehiago daude aurren: San Juan eta Orio.

Eta Getaria-Tolosako ontzian aldaketarik ba al dago?

E.E.: Arraunlari bat edo beste faltako da eta beste horrenbeste berri ditugu, haien hutsunea betetzeko. Baina, bestela, iazko jende bertsuak jarraitzen dugu taldean. Oinarrizko blokea joan den urteko bera da.

L.B.: Iazko blokea mantentzea abantaila nabarmena izan da taldearentzat. Izan ere, arraunlariok elkar ezagutzen dugu jada, eta jakin bada-

Leire Baraibar

Areso, 1979

Eneida Etxabe

Getaria, 1988



« Selekzio gisa jokatu behar dugula zehaztu dute, eta taldeok onartu egin behar izan dugu »

kigu bakoitzak nola funtzionatzen duen, nola egiten duen arraunean. Joan den urtean zailagoa izan zen, tolosarrek eta guk arraunkera ezberdina geneukalako. Aurten, aitzitik, etxeko lanak eginda daude eta uretaratzen garenean igartzen da elkarrekin aritutakoak garela.

E.E.: Hori hasierako kezka izan zen, nolabait ere. Ondoren, entrenatzen eta estropadak jokatzeko joan ahala, berehala egin genuen bat.

Trainerilletan ongi ibili ondoren eta orain erakusten ari zareten maila kontuan izanda, helburu zehatzak finkatuko zenituzten, ezta?

E.E. eta L.B.: Ahal izanez gero,

dena irabazi nahi dugu! Gure nahia parte hartzen ari garen txapelketa eta estropada guztiak irabaztea da, baina ea zer gertatzen den! Aurten, gainera, iazko txapelketez gain, Gipuzkoako Liga ere jokatzeko ari gara estreinakoz, eta hori ere lortu nahiko genuke. Ahal duguna egingo dugu, noski, baina irabazteko aukera badugu, aurrera! Bestela alferrik ariko ginateteke entrenatzen.

EuskoTren Ligan parte hartzen ari da Getaria-Tolosa. Beste estropadetan ez bezala, aipatutako ligan Gipuzkoako selekzioa ordezkatzeko du taldeak (txandaka, Zumaiarekin batera). Zer iritzi duzue horri buruz?

E.E.: Beste traineru batzuen lanaren mende egotea ez da batere motibagarria. Iaz, esaterako, EuskoTren Ligako lehen estropada irabazi genuen, baina hurrengo egunean Gipuzkoako beste talde batek ordezkatu zuen eta ez zen gu bezain ongi ibili. Gure taldea irabaztera eta duen guztia ematera ateratzen da uretara, erakutsi dugun bezala [bi bandera lortu dituzte]. Gero, beste talde batek estropada txarra jokatzeko bada, ez digu inolako graziaz egingen!

GETARIAKO arraunlari Leire Baraibar eta Eneida Etxabe.

L.B.: Alde horretatik, funtzionamendua edo sistema hori ez da beharbada egokiena. Azken finean, liga bat da eta parte hartzen dugun mementotik irabazi egin nahi dugu. Beraz, guk egindako lanak jarraipenik ez badu, alferrik gabilta. Azkenean, ligako azken emaitza ez dago gure esku bakarrik.

E.E.: Selekzio gisa jokatu behar dugula zehaztu dute, eta taldeok onartu egin behar izan dugu. Gauzak aldatzeko eskatu zaie, baina xehetasun hori zehaztuta dago eta aurten behintzat ez dute aldatuko. Eta ez dago besterik!

Oso gutxigatik bada ere, iaz Kontxa Banderak ihes egin zizuen. Zer itxaropen duzue aurten?

L.B.: Bertan izango garela uste dugu, baina ez gara Kontxan pentsatzen hasi oraindik. Hurbiltzen doan heinean ikusiko dugu.

Aurten, eskualdean emakumezkoen hiru traineru uretaratuko dituzte: Orrio, Zumaia eta Getaria-Tolosa. Emakumezkoen arrauna suspertzen ari dela iruditzen al zaizue?

L.B.: Talde berriak osatzen badoz, agerikoa da suspertzen ari dela.

Kontxako Banderan emakumez-kook jokatzeko aukera izateak eragin nabarmena izan duela esango nuke. Orain arte gizonzkoek bakarrik jokatu ahal izan dute eta azken urteetan emakumezkooi atea zabaldu dizkigute.

E.E.: Horrekin batera, Eusko Tren Liga dela, telebista dela, oihartzun handia eman diote... Horrek emakume gehiago animatu ditu arraunean egitera... eta zenbat eta gehiago izan, askoz hobe!

Ondorioz, berdintasun egoera horretara hurbiltzen ari al da arrauna?

E.E. eta L.B.: Berdintasun egoera oraindik urruti dago!

L.B.: Liga selekzioko jokatu beharrek agerian uzten du oraindik ezberdintasunak daudela. Ez digute talde guztioi parte hartzen lagatzen, gizonzkoen ligan bezalaxe. Gainerakoetan, aldiz, Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketetan, talde be-

zala aritzeko aukera ematen digute.

E.E.: Hainbat estropadatan distantzia laburragoa jarri izan digute. Aurten, proba batzuk kenduta, estropada osoak jokatzeko ari gara, distantzia osoak. Alde horretatik, aurrerapauso polita da. Izan ere, gu gizonzkoek osatzen duten distantzia bera egiteko gai gara. Denbora gehiago beharko dugu, baina ez dugu gainditzeko inolako arazorik.

Zer falta da emakumezkoen arrauna gizonzkoen arraunen pare egoteko?

E.E.: Denbora kontua da!

L.B.: Etorriko da. Gauzak pixkanaka-pixkanaka aldatuz doaz, eta urtetik urtera aurrerapauso berriak ematen ari gara.

E.E.: Emakumeok traineruan atera ginen lehen urte hartatik, zeina tamalgarria izan zen, gauzak aldatzen joan dira. Presaka egin zen guztia orduan. Orain garatzen doala dirudi: antolaketa, selekzioan, sarietan, distantzian eta beste

arlotan batzuetan dauden ezberdintasunak desagertzen joango dira denborarekin.

L.B.: Kontxan bertan ere badaude diferentziak: gizonzkoek bi asteburutan jokatzeko dute eta guk, berriz, bezperan egiten dugu sailkapen proba eta igandean txanda nagusia. Gizonzkoek astebete dute atsedean hartzeko eta estropada prestatzeko; gurea egun batetik besterako kontua izaten da.

Lehen denboraldian, taldea Zumaiarekin batera osatu zenuen urtean, «emakumeen arrauna anekdota hutsa ez izatea» espero zuten taldekideek. Hirugarren urtean gaude, jada. Zuek zer iritzi duzue?

E.E.: Jada ez da anekdota hutsa! Jende asko eta arraun elkarteak beraiek buru-belarri ari dira hau aurrera ateratzeko lanean.

L.B.: Hirugarren urtea da, eta aurrerantz joango gara aurrerantzean. Gu ilusioz beteta gaude, behintzat!

ARRAUNA ZUMAIA

Getaria-Tolosarekin batera, Gipuzkoako selekzioa ordezkatzeko ari da Zumaia Kiroljokoa trainerua Eusko Tren Ligan. Era berean, Gipuzkoako Ligan lehiatzen ari dira. Mementoz, getariarren itzalpean dabilta, baina maila ona dute erakutsi dute. Gipuzkoako Txapelketan, esaterako, bandera eskuratu zuten. Taldearen helburua jokatzeko dituzten estropada guztietan lan txukuna egitea da eta, horren haritik, emaitza onak lortzen badituzte, askoz hobe. Zumaiarrak, gainera, duela hiru urtetik ari dira lanean, emakumezkoen arrauna suspertu zenetik; lehen urtean Getariarekin eta iaiztik euren kabuz. Eskarmentua euren aldeko ezaugarria da.



ARRAUNA ORIO

Aurten bi traineru berri sortu dituzte: bata, San Juan eta bestea, Orio. Horrenbestez, Urola Kostan emakumezkoen hiru traineru aurkeztu dira estropadetarara. Orio bezalako izen eta izan garrantzitsuen parte dira, baina lehenengo urtea dute eta esperientzia falta sumatzen dute tostetan. Zumaia Kiroljokoa eta Getaria-Tolosak ez bezala, ez zuten Eusko Tren Ligarako txartelik lortu, baina Gipuzkoako Ligan elkarren aurka ari dira indarrak neurtzen. Eman beharreko lehen urratsa eman dute, eta etorri beharrekoak etorriko dira denborarekin. Taldea arraunlari gazteez eta helduez osatuta dago, eta emakumeei arraunean jarraitzeko aukera ematea da elkartearen helburua.



Itsaslabarretan saltaka

Bigarren urtez, Zumaia Flysch Trail mendi lasterketa erakargarria jokatu dute, eta iazko txapeldun Raul Garcia berretsi du garaipena; emakumeetan, Ana Condek eman du ezustekoa.



RAUL GARCIA eta Aitor Osa orpoz orpo, lasterketaren azken txanpan.

ESTREINAKO urtean lortutako oihartzunaren ondoren, Zumaia Flysch Trail mendi lasterketak ez zuen erronka erraza aurten. Lehen aldiak herrian eta, oro har, parte-hartzaileen artean utzitako zapore gozoa mantendu behar zuen, goi mailako mendi lasterketen zirkuituan egonkortzen joateko. Itxaropenak egi bihurtzen dira eta egindako lanak bere fruitua ematen du, eta itsaslabarretako probak

pauso bat aurreruntz egin du. Alde batetik, 360 lagunek irten zutelako lasterka, antolatzaileek ezarritako kopuru mugatik oso gertu, eta bestetik, lehia ikusgarria bizi izan zelako, iazko markak hobetzeekin batera.

Gizonezkoetan ez zen ezusterik izan. Iazko irabazle eta Europako txapeldun Raul Garcia Castan zen faborittoa, eta honek ez zuen hutsik egin. Dena dela, txirindulari ohi

Aitor Osa itziartarrak lanak eman zizkion; izan ere, hasieratik buruan jarri zen tiraka, Garcia Castan oso gertu zuela. Sakoneta parean biak parean zihoazen, baina Mendata inguruan Osa aurrera egin eta, Zumaia bidean, bi minutuko aldea ateratzen txapeldunari. Honek, ordea, indarrak ongi neurtuta zituen, eta Talaimendira iritsi baino lehen Osa harrapatu eta azken igoeran, indarrez osoago zegoela erakutsiz, hel-



Etxeberria, Hiru Handietan handien

Pedro Etxeberria korrikalari zumaierak XVII. Hiru Handiak proba irabazi zuen ekaineko azken asteburuan, iraupen luzeko mendiko lasterketarako erreferente garrantzitsuenetako bat. Bera izan zen Gorbea, Anboto eta Aizkorri zeharkatzen dituen ehun kilometroko ibilbidea osatzen lehena, 11:58:10 markarekin. Aurtengoa proban parte hartzen zuen bigarren aldian izan zen zumaierak. Lehena duela lau urte korritu zuen, baina osatzeko helburuarekin irten zen orduan, eta ezarritako denbora ere xumea izan zen. Oraingo honetan, ezuste eman du. Zur eta lur geratu den lehenengoa bera izan dela onartu du Etxeberriak, ez baitzuen espero txapela janzterik. Korrikalariaren esanetan, «halako probetan aritzen den jende askok hartu zuen irteera. Horiek distantzia luzeetan ibiltzera ohituta daude, eta, egia



esan, ez nuen uste hor aurrean ibiliko nintzenik, ezta irabaziko nuenik ere». Buruan joan zen 60. kilometrorara arte, lau aldiz txapeldun izandako Joxe Luis Albizuri azkoitiarrarekin batera. Landan, ordea, Albizurik baino geldialdi luzeagoa egin zuen Etxeberriak, eta atzetik zetorren Oier Ibarbia zizurkildarrak ere ia segidan jarraitu zuen bidea. «Bi horiek tarte handia atera zidaten, baina pixkanaka haiek harrapatuz joan nintzen. Gero eta hurbilago ikusten nituenek, motibatu eta aurrea hartu nien 88. kilometro inguruan», gogora ekarri du korrikalari zumaierak. Bestalde, aurtengo lehen aldiz Zegama-Aizkorri mendi maratoian hartu du parte, eta 31. postuan sailkatu da. Euskadiko Kopako bi probetan bi 8. postu lortu ditu eta Flysch Trailean, berriz, eskualdeko lehena izan da.

mugarantz abiatu zen bakarka. Gainera, ia hiru minutuan hobetu zuen lehen marka hura. Bigarren Osa helmugaratu zen, ia bi minutura. Dena dela, itziartarrak ere nabarmen laburtu zuen iazko denbora.

Garcia Castan oso gustura agertu zen egindako erakustaldiarekin. Hala ere, bere gusturako lasterketa «azkarregi» abiatu zela iritziz dio: «Lehen aldapatxoan jada jendea tiraka hasi da eta nik erabaki dut nire erritmoa joatea, gehiegi behartu gabe». Txirrindulari ohiarekin izandako lehian zuhur jokatu zuela aitortu zuen: «Bi minutuko aldea atera zidala esan zidaten lasterketan, baina nik banekien harrapatzeko aukera nuela, denboraren poderioz indarrak oso ondo neurtzen ikasi dudalako». Osak, bere aldetik, hasiberri-tzat jo zuen bere burua: «Urtebete baino ez daramat saltsa honetan eta asko dut oraindik ikasteko. Baina datorren urtean, hobetzea espero dut».

Conde bizkorrena

Nahiz eta mira guztiak Espainiako txapeldun Blanca Serranori zuzenduta egon, Ana Conde gasteiztarra izan zen onena emakumezkoetan. Kasu honetan, faboritoak kale egin zuen, eta hirugarren sailkatu zen

Nerea Amilibia aiarraren atzetik. Condek lasterketa bikaina osatu zuen, ibilbidea ezagutzen ez bazuen ere. Proba hasieran atzean gelditu zen, baina seigarren kilometrotik aurrera pixkanaka-pixkanaka aurkari guztiak gainditu eta iaz Oihana Kortazarrek egindako marka hiru minututan ondu zuen. Irabazlea guztiz txundituta geratu zen Zumaia Flysch Traileko antolakuntzarekin: «Ibilbidea asko gustatu zait. Oso azkarra da, eta nabarmentzekoa da dena oso ondo markatuta dagoela, baita ibilbide osoan zehar jendea laguntzeko prest dagoela eta hornidura postuak daudela ere. Bikaina iruditu zait».

Mendi lasterketa hasi aurretik, Edurne Pasa-ban, Alex Txikon eta Asier Eizagirre mendizaleak omendu zituzten irteera puntuan.

Hauk garaikurra jaso zuten Zumaia alkatearen eta Flysch Trail probako antolatzaileen eskutik.

II. ZUMAIA FLYSCH TRAIL PROBA

GIZONEZKOAK

1. Raul Garcia Castan	01:51,44
2. Aitor Osa Eizagirre	01:53,32
3. David Lopez Castan	01:57,21
4. Pablo Vega Torres	01:59,41
5. Juanjo Igarzabal Deba	02:00,36

EMAKUMEZKOAK

1. Ana Conde Bernal	02:19,06
2. Nerea Amilibia Arruti	02:20,19
3. Blanca Serrano Serrano	02:24,56
4. Elena Calvillo Arteaga	02:26,47
5. Yolanda Gurendez Aldanondo	02:35,28



Baleen zipriztinak, igerilekutik itsasora

Eskualdeko igeriketa elkarte bakarra da Zarautz Balea Igeriketa, eta adin guztietako 120 igerilarik osatzen dute; taldeak Getaria-Zarautz proba antolatu du aurtengoan ere.

Zarauzko igeriketa taldea udal kiroldegiarekin ia batera sortu zuten, 1981-1982 aldean. Edorta Badiola izan zen hasiera hartan elkartearen kudeatzaile arduratu zuzena eta entrenatzaile lanetan hasi zena. Orain dela hiru urtera arte igeriketa taldea Zarautz Kirol Elkartearen baitako atala zen, baina izaera autonomoagoa izate aldera, ZKEtik atera eta Zarautz Balea Igeriketa eratu zuten. «Enpresa moduan instalazioak kudeatzeko eta ikastaroak emateko ahalmena edukitzeko hartu genuen erabakia; betiere, ordura arteko kirol elkartearekin jarraituz. Hasierako filosofia berarekin jarraitzen dugu lanean,

baina egitura handiagoa eta profesionalagoa dugu orain», adierazi du Zarautz Balea Igeriketa taldeko zuzendari teknikoa den Ion Trekuk.

Adin guztietako jendearentzat eskaintzen dituzte ikastaroak, haur txikienetatik helduenetara arte. Txikien ikastaroa sei hilabetetik 3 urte bitarteko umeentzat izaten da; igeriketa eskola 3-14 urte artekoek zuzenduta dago, eduki eta helburu ezberdina duten 5 mailatan banatuta; eta, azkenik, helduentzako eskolak ere ematen dituzte. Kirol elkarte bezala, benjamin, alebin, infantil, kadete, junior, senior eta master mailako igerilariarekin egiten dute lan eta, guztira, 120 igerilari inguruk osatzen du taldea.

«Goi mailako igerilariak ditugu, baina baita parte-hartzaile gisa aritzen direnak ere. Maila guztietan beti agertzen da nabarmetzen den norbait. Azken urteotan, esaterako, Pablo Cazalis punta-puntan dabil; izan ere, Espainia mailan hainbat domina lortu du. Bestalde, master mailakoak ere Espainiako txapelketetan lehia-

tzen aritu dira eta, egia esan, emaitza onak lortu dituzte», adierazi du Trekuk.

Hasierako belaunaldiak

Tradizioz igerilari azpimarragarriak eman ditu Zarauzko igeriketa taldeak: «Elkartearen hasieran, 80eko hamarkadaren erdialdean, igerilari belaunaldi oso ona izan zen herrian; besteak beste, Edorta Badiola, Alex Zabala, Pablo Azkue, Mikel Azkue, Nerea Murua eta Jeronimo Esnal bezalako igerilariak osatu zuten. Zarauzko taldeak Euskal Herri nahiz Espainia mailan lehiatzen zuten. Izarreko teknifikazio zentrora zarautar asko joan zen bere garaian», gogora ekarri du igeriketa taldeko arduradunak.

Gerora ere maila aipagarria izan duten igerilariak izan dituzten arren, 80eko hamarkadan nabarmendu zen belaunaldia bezalakorik, behintzat, ez da errepikatu: «Adin bereko igerilari sorta ona garai berean ateratzea oso zaila da, nahiz eta igeriketa elkartetik lana gogor egin».



IGERIKETA
taldeko
master
mailako
kideak
Getarian.



Hala ere, Baleako zuzendari teknikoak aitortu duenez, orain dela gutxira arte «igeriketa eskola ez zegoen horren garatuta» eta, ondorioz, «hutsune handia» izan dute igerilariak behar bezala trebatzeko. Izan ere, «hasiera batean igerilekuan luze bat igerian egiteko gai ziren gazteak hartzen genituen elkartean, baina oinarrizko entrenamenduak egin beharrean igeri egiten irakasten aritzen ginen». Antza denez, haur askok ematen zuten izena taldean, baina jarraitzen zutenak oso gutxi izaten ziren. Egun, ordea, igeriketa eskolatik pasatu behar dute; lehenik eta behin igerian ikasi, eta ondoren, nahi dutenei, elkartearekin entrenatzeko aukera eskaintzen diete: «Horrek oinarrizko maila baduten igerilariak izatea bermatzen digu».

Duela hiru urte abian jarri zuten eskolari esker, gaur egungo igerilari gazteek maila hobea dutela dio Trekuk, eta «epe motzera emaitzak ikusten hasiko gara».

Masterrak ere lehian

Master mailako taldea 20 urte-tik 60 urte pasatxora arteko 30 igerilari osatzen dute. Hauek beraien kasa hasi ziren entrenatzen, eta Zarautz Balea Igeriketak astean zehar entrenamendu saio batzuk jasotzeko aukera eskaini zien; batik bat, udako igeriketa zeharkaldietara begira. Hortik abiatuz, «pixkanaka-pixkanaka animatuz joan dira, eta neguan ere igerilekuan jokatzeko diren hainbat txapelketatan parte hartzen ari dira. Gazteek bezala, lehiatzeko grina dute hauek ere».

Getaria-Zarautz 40. Itsas Zeharkaldia

40. Getaria-Zarautz Itsas Zeharkaldia jokatu zuten uztailaren 18an, inoiz izan duen parte-hartzaile kopuru handienarekin: 1.240 igerilariarekin, alegia. «Urtez urte zeharkaldia egiteko gero eta zale gehiago dagoela ikusten dugu, eta horrek asko motibatzen gaitu antolatzeko orduan. Hamarkardak betetzen dituzunean, eta kasu honetan berrogeigarrena izanik, ongi egindako lanaren erakusle da. Ondorioz, aurten zerbait berezia antolatu nahi izan dugu. Izaera herrikoa eman diogu probari, baina kalitate gehiago emanez», adierazi du Ion Trekuk. Aurten lehen aldiz, itsas zeharkaldiak lau irteera ordu izan ditu; igerilariak beraien lehen egindako zituzten denboren arabera zehaztu zen bakoitzak zein orduan

irten behar zuten. Urteurren berezi honetako garaileak, Adnan Mustafic eta Maite Garcia izan ziren. Dena dela, igerilariak ez zituzten denbora oso onak egin, itsasoa mugituta zegoelako. Helduen aurretik, bestalde, gaztetxoek euren zeharkaldia egin zuten, Zarautzko moila inguruan.



Ondo pasatzeko aukera zabala!

Kirol berriren bat ezagutzeko parada ezin hobea da uda, eta eskualdeko herri guztiek horretarako bidea eman diete eskolarteko neska-mutilei. Ikastaro batzuk uztailean izan badira ere, abuztuan ere aukera zabala topatuko dute. Aukeratu ezazu zurea!



GERO ETA KIROL eskaintza zabalagoa topa dezakete gaztetxoek uda sasoiari: aerobika, tenisa, piraguismoa, surfa, arraun surfa, golfa eta beste horrenbeste aisialdi jarduerak. Eskualdeko udalek, herriko kirol elkarteekin elkarlanean, hainbat ikastaro antolatu dute ekaina bukaeratik iraila hasiera bitartean, eta, urtero bezalaxe, gogokoen duten kirolaz gozatzeko edo kirol mota berriren bat probatzeko asmoz, makina bat neska-mutil animatu da izena ematera. Oraindik ez duzula erabaki? Lasai, abuztuan zehar ere nahi adina aukera izango duzu zure herrian edo ingurukoetan.

Zumaiako Udalak piraguismoko, surf-bodyboardeko, arraun surfeko eta golfeko ikastaroak antolatu ditu, 8 eta 16 urte bitartekoentzat, Itsas Kiroldegian (943-860776). Lubaki kiroldegian, berriz, aerobika, igeriketa, cycling-a eta tenisa egiteko aukera ematen ari dira (943-862021).

Getariako kirol jarduerak gehienak uztailean landu dituzte. Hala eta guztiz ere, Kostabela elkartearekin belan aritzeko edo surfean eta arraun surfean irristatzeko aukera dago oraindik, baita piraguis-

moa praktikatzeko ere. Izena eman edo informazio gehiago jaso nahi dutenek Getariako Udalarekin (943- 896024) edo Turismo Bulegoarekin (943-140957) jarri beharko du harremanetan.

Zarautzen, makina bat surfikastaroz gain, Zarautz Kirol Elkarteak antolatutako Jolasti kirol udalekuak antolatu dituzte aurten ere. Abuztuan zehar, futbola eta saskibaloia oinarri dutenek bakarrik emango dute eskola: abuztuaren 9tik 13ra; abuztuaren 23tik 27ra; abuztuaren 30etik irailaren 3ra; eta, irailaren 6tik 10era. Izena ZKEren egoitzan bertan eman daiteke (Kale Nagusia 7, 1. solairua. 943-831463 edo zkecdz@zarautz.com).

Ikastaroak hamabostaldika antolatu dituzte Orion, eta adinaren arabera: 6 urtetik beherakoek igeriketa egin ahal izango dute; 6 urtetik 9 urte bitartekoek igeriketa, waterpolo, tenisa, dantzak, kapoeira, futbola eta saskibaloia; eta 10 urtetik aurrerakoek, aurreko kirol guztiez gain, sofballa, surfa, patinak eta arraunketa ere bai. Abuztuan bi ikastaro epe jarri dituzte: bata, abuztuaren 2tik 13ra eta bestea, abuztuaren 16tik 27ra. Horietan parte hartu nahi dutenek Karela kiroldegian bertan eman beharko dute izena.

Aiako Udalak, azkenik, lau kirol jarri ditu aukeran, eta laurak uztailean landu dituzte: igeriketa, patinajea, tenisa eta hipika, hain zuzen ere.

DATUA

159

Apustu bitxia, ezohikoa eta, era berean, erakargarria jokatu zuten ekaina bukaeran Aiaiko probalekuan: Joxe Ramon Iruretagoiena, *Izeta II.*-a harri-jasotzaile aiarrak Aiztondo-Oarso giza proba taldearen aurka neurtu zituen indarrak. Faborito argirik ez zegoen arren, Izetak maisutasun handiz irabazi zion zortziko lagun taldeari. Giza probako plaza bakoitzeko bi altxaldi egin behar zituen harri-jasotzaile beteranoak, 125 kiloko harri errektangularrarekin, eta ordu erdiko saioan bietatik norke gehiago egin zezan apustuak. Aiarra izan zen lanean hasten lehena eta 159 jasoaldi egin zituen. Aiztondo-Oarso 80 plaza egin behar zituen lehia irabazteko, baina 71 plaza bakarrik egin zituzten.



BA AL DAKIZU...

Giza probakoek zer-nolako harria erabili zuten?

Giza probako taldea zortzi lagunek osatu zuten, eta hauek Aiaiko probalekuko 900 kiloko harriarekin aritu ziren lanean; normalean, idiek demetan erabiltzen duten harri bera. Apustua zehazteko orduan, oreka bilatzen saiatu ziren eta Izetaren harriak 125 kiloko errektangularra izan behar zuela erabaki zuten. Izan ere, batez beste, giza probako kide bakoitzak 100 kilo pasatxo hartzen zituen bere gain.

Zarauz

Europako harrobia bertako olatuetan

Bigarren urtez jarraian, Europako Quiksilver King of the Groms txapelketako finalak jokatu dituzte Zarauzko hondartzan.



Quiksilver King of the Groms txapelketako Europako finalak jokatu dituzte uztailaren 30etik abuztuaren 1a bitartean, Zarauzko hondartzan. Egun horietan, 16 urtez azpiko nazioarteko 32 surflarik hartuko dute parte bertan. Txapelketa honek iaz ere egin zuen geldialdia Zarauzko olatuetan. Orduan, eskualdeko bi suflari gazte

lehiatu ziren. Europako onenen artean: Imanol Yeregi eta Josu Alcantara zumaiarrak, alegia. Aurten, ordea, ez dirudi bertako ordezkariarik izango denik. Zarauzko finaleko lehen bi surflari onenak irailean Frantzia jokatu den Munduko Txapelketa-ara txartela lortuko dute. Azken proba horretan 18 lagun ariko dira lehian.

Orio



Gaztetxoak

ere triatloian murgildu dira

Orioko Herri Ikastolaren ekimenez, Orioko II. Triatloi Herrikoia jokatu zuten sanpedroen baitan, ekainaren amaieran. Helduekin batera, herriko gaztetxoek ere hartu zuten parte lasterketan. Guztira, hamalau neska-mutilek gainditu zituzten hiru probak, eta Mikel Amilibia izan zen guztiak osatzen lehena.

Zarautz Hondartzako Eskubaloia

Bainujantzien norgehiagoka

Txaparrotan Hondartzako Eskubaloia Festak erantzun bikaina izan du aurtengoan ere. Parte-hartzaile aldetik, talde kopuru asko aritu zen lehian eta eskubaloiko sei eremu ere prestatu behar izan zituzten Deserto Txikian. Uztailaren 2tik 4a bitartean, eskolarteko 562 neska-mutil (benjamin mailako 23 talde; alebinetako 32 talde; eta infantiletako 21) eta 36 talde aritu ziren lehian (gizonezkoen 20 talde eta emakumezkoen 16 talde).

Kirol ekimenaren helburua eskubaloiaz gozatzea eta lagunartekoa sustatzea da. Hala ere, lehiarako tartea izan zen, batik bat Helduen Lagunarteko Txapelketa Herrikoian, halakoetan inork ez baitu galdu nahi izaten. Hainbat partida jokatu ondo-



ren, *Jooward* taldea izan zen garaile gizonezkoetan, eta emakumezkoetan, berriz, *Ttak* taldea. Txaparrotan Eskubaloia Festari buruzko ikusentzunezkoa www.sasioan.info webgunean dago ikusgai.



Eskualdeko Arrauna Estropadaz estropada

Oriotarrek hasiera ezin hobe eman diote TKE-San Miguel Liga hasierari, denboraldiko hiru banderak irabazita; Bilbo Hiria Bandera, Donostiako Movistar Bandera eta Pasaiko Kofradia Bandera, alegia. Aurten, liga eskuratzeko borrokatuko direla dirudi! Txanponaren beste aurpegia, aldiz, eskualdeko beste bi traineruek erakutsi dute orain arte. Zumaia eta Zarautz azken postuetan sailkatu dira uztaileko estropadetan. Beraz, mailari eutsi nahi badiote, azkar suspertu beharko dute. KAE mailari dagokionez, Orio B lehen multzoko goiko postuetan dabil; bigarren mailan, berriz, Getaria sailkapeneko buru da, eta Zumaia eta Zarautz, hurrenez hurren, aurreko postuetan eta erdialdean kokatuta



daude. Egutegiari kasu eginez, datozen asteetan hainbat estropada jokatuko da eskualdean: uztailaren 31n, Zumaiaiko Ikurriña (KAE 2); abuztuaren 1ean, Zumaiaiko Ikurriña (TKE eta EuskoTren); abuztuaren 8an, Getariako Bandera (KAE 2 eta Gipuzkoako Liga); abuztuaren 14-15ean, Zarautzko Bandera (TKE, EuskoTren eta KAE 2); eta, abuztuaren 28an, Orioko Bandera (TKE).



Mendiko bizikletarekin, trabesian eta maldan behera

Iazko arrakastaren ondotik, Zarautz-BTT-Pagoeta taldeak mendiko bizikleten trabesia herrikoia eta jaitsiera antolatu zituen aurten ere. Trabesia Pagoeta Natur Parkean egin zuten, uztailaren 11n, eta ia 200 txirrindularik hartu zuten parte. BTT Jaitsiera astebate geroago jokatu zuten Zarautzko Torreoi eta Santa Barbara inguruan; aurten Gipuzkoako Txapelketa ere izan dute jokoan.

Zarautz Surfa Txapelketen hilabetea abian da jada



Uztaila bukaeratik irailaren hasiera bitartean, kolore guztietako surf txapelketak jokatu dituzte Zarauzko hondartzan. Quiksilver Kings of The Groms 16 urtez azpikoen Europako finalak emango dio hasiera, uztaila bukaeran; abuztuaren 3-4an, emakumezkoen Rip Curl Girl Tour bira iritsiko da; abuztuaren 27-28an, berriz, Rip Curl Txiki Surfa; abuztuaren 29an, Euskal Herriko Euskaltel Surf Txapelketa; eta, abuztuaren 31tik irailaren Sera, azkenik, Munduko Surf Txapelketa.



Mikel Aristi garaile Zumaian

Sumofic taldeko Mikel Aristi izan zen Zumaiaiko Txirrindulari Elkarteak antolatutako Zumaiaiko XXXII. Uda Sariko garailea. Haren atzetik Rural Kutxako Jon Ander Insausti eta Galdianoko Endika Etxegoien iritsi ziren helmugara. Aste batzuk geroago, talde bereko Ion Riverok jantzi du Aiako I. Txirrindulari Sariko txapela.



Igerian eta korrika, Getariari itzulia emanez

laz baino lagun gehiago animatu zen Getariako IX. Salvatore Biatloi Herrikoian parte hartzera, uztailaren 24an. Eguerdian jokatu zuten proba; aurrena, Malkorbetik dikera igeri egin eta, ondoren, herriari itzulia emanez, herriko frontoian helmuragatu ziren. Aurtengo irabazleak Jon Unanue eta Miren Casado izan dira.

Pilota

Zumaiaiko XXXIX. Dinastia Etxabe esku pilota txapelketa abian da.

Uztailaren 23an ekin zioten kanporaketa aurreko lehen partidei, eta hilabeteko lehiaren ondoren, abuztuaren 26an jokatu dituzte finalak. Azken urteetan bezalaxe, txapelketa Zestoako frontoian jokatzen ari dira, 22:00etatik aurrera. Bi kategoriatan banatuta dago txapelketa: alde batetik, jubenilak daude eta bestetik, seniorrak. Kanporaketa aurreko bigarren partidak hilaren 30ean jokatu dituzte; kasu honetan, Bilbao-Erreka bikotea Nabarte-Murgiondoaren aurka lehiatuko da, eta Ojuel-Bolinaga Hernandez-Mendinuetauren aurka. Ondoren, finalburdenak jokatu dituzte, abuztuaren 3an, 5ean, 10ean eta 12an. Finalerdia, berriz, abuztuaren 17an eta 19an eta finaleko norgehiagokak, azkenik, abuztuaren 26an.

Urola Kosta

Aia

Getaria

Orio

Zarautz

Zumaia

Aukeratu kirola

Elkarrizketa digitalak | Inkestak | Kirol Foroa | Iragarki Taula | Bideoak | Argazkiak | Agenda-Emaitzak |

Azken albisteak

FIRAGUA >> 2010-07-01 17:02:26



Iñigo Peña:
"Europako onenekin buruz buru borrokatzeko aukerak asko motibatzen nau"

Baleike.com-ek argitaratu eman du berria

Iruzkirik ez

FUTBOLA >> 2010-07-01 11:04:49



Realak Zarautzen jokatu du abuztuaren 14an

Denboraldi aurreko partida izango da eta Gijongo Sporting-en aurka ariko da

Iruzkirik ez



Hondarretan borrokan

Hondartzako I. Grappling Txapelketa Irekia jokatu dute larunbat arratsaldean, 17:00etan hasita, hondartzan

Iruzkirik ez

Inkesta



Futboleko Munduko Txapelketa zein selekziok irabaziko du?

[Ikusi inkesta](#)

Elkarrizketa digitalak



Sasoiain boletina



Sasoiain.info-n argitaratutako berriak zure postan jaso nahi dituzu?

Erregistratu eta zure intereseko kirolen inguruko informazioa jasoko duzu astero.

informazioa jasoko duzu astero.

Sasoiain Aldizkaria



Beroketa ariketa
Berriketa
Kronika
Hariari Tiraka
Taldea
Kirolari gazte
Erronka
Aurkezpena
Iritzia

Eskura ezazu sasoiain aldizkariaren azken zenbakia, PDF formatuan

[Ikus aurreko zenbakiak >>](#)

Zu ere sasoiain

Elkarrizketa digitalak

Elkarrizketa digitalak | Inkestak | Kirol Foroa | Iragarki Taula

Elkarrizketa digitalak

Azken albisteak
2010-06-28 12:00:00
[Ikusi albisteak](#)

Elkarrizketa digitalak

- == Agur! Herrialdeko kirolariak... ==
- == Hona hemen Zarautz... ==
- == 16 urte ditu... ==
- == 16 urte ditu... ==
- == 16 urte ditu... ==
- == 16 urte ditu... ==
- == 16 urte ditu... ==
- == 16 urte ditu... ==
- == 16 urte ditu... ==
- == 16 urte ditu... ==

Zu ere sasoiain

Oraineko

Elkarrizketa digitalak

Inkestak

Kirol Foroa

Iragarki Taula

Bideoak

Argazkiak

Agenda-Emaitzak

animatu, parte hartu eta gozatu kirolaz aukeratik mugitu gabe...